

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

531/2025 Foru Agindua, urriaren 23koa. Administrazio batzarretako kideak hautatzeko 2025eko azaroaren 23an egin behar diren bozketei buruzko jarraibideak

Arabako Lurralde Historikoko kontzejuetako administrazio batzarretako errejidore eta bokal karguak beteko dituzten pertsonak hautatzeko prozesuak dituen berezitasunak direla eta, hauteskunde horien oinarritzko hainbat gai arautzea komeni da. Dena dela, ordezkio moduan udal hauteskundeetarako indarrean dagoen araudia erabiliko da.

Horregatik, eta Foru Gobernu Kontseiluaren hauteskunde horien deialdiari buruzko irailaren 9ko 525/2025 Erabakiaren bidez (irailaren 22ko ALHAO, 107. zk.) emandako gaikuntzaz baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Hautagai zerrenden publizitatea

Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuetako Errejidoreak eta Kideak Hautatzeko 1984ko uztailaren 30eko Foru Arauak 9. eta 11. artikuluetan aipatzen dituen hautagai zerrenda ordenatuak ALHAOn argitaratu ondoren, haiek jendaurrean ipini beharko dira erakundearen iragarki taulan edo ohiko lekuan, baita bere udalerriko udalaren iragarki taulan ere, bozketa egiten diren egunera arte.

Bigarrena. Hauteskunde mahaia

Aipatutako foru arauaren 12. artikuluen arabera, hauteskunde mahaia honako hauek osatuko dituzte: agintaldia bukatu duten administrazio batzarretako errejidoreak eta kideak, idazkariak lagunduta.

Hauteskunde mahaiko kideren bat gaixorik badago edo aldi baterako absente edo ezinduta badago, edo pertsona horiek hautagaitza aurkeztu badute, 2021ean egindako hauteskundeetan lortutako emaitzen arabera hurrengoa den norbaitek beteko ditu postu hutsak. Hori ezinezkoa bada, lurralde historikoko Hauteskunde Batzordeak zozketa bidez egingo du izendapena.

Hirugarrena. Bozketa

a) Bozketarako ezarritako eguneko zortziak eta berrogeita bost minutuan, batzar aretoan edo bileretarako ohiko lekuan bilduko dira batzarra osatzen duten kideak, idazkariak lagunduta, eta bigarren apartatuan jasotzen den moduan eratuko dute mahaia.

b) Bozketa bederatziatan hasiko eta arratsaldeko hirurak arte jarraituko du, etenik gabe. Hala ere, Hauteskunde Batzordeak, administrazio batzarreko lehendakariak proposatuta, ordutegi hori luzatu ahal izango du hautesle kopuruaren edo justifikatutako beste inguruabar batzuen arabera.

c) Ezinbesteko kasuetan bakarrik eten ahal izango da bozketa, edo ez hasi. Kasu horretan, mahaiko lehendakariak idazki arrazoitu bat igorri beharko du, eta haren kopia ziurtatua bidaliko zaio lurralde historikoko Hauteskunde Batzordeari, egiazta dezan eta, hala badagokio, erantzukizunak eska ditzan.

Bozketa eteten bada, emandako botoak ez dira zenbatuko, ezta zenbatuko ere. Lehendakariak hautetsontzian sartutako boto paperak berehala suntsitzeko aginduko du, eta hori jasota geratuko da idazki horretan.

d) Hautatu beharreko kide adina hautagai edo hautatu beharreko kideak baino hautagai gehiago dituzten kontzejuetan, hautagai zerrendak inprimaturik dauzkan EC.2 ereduko boto papera erabiliko da. Hautesleak gurutze batez markatuko du zein hautagairi ematen dion botoa, eta hautatu beharreko kide kopuruaren baliokidea ken bat aukeratu ahal izango du gehienez ere.

Hautatu beharreko kideak baino hautagai gutxiago dituzten kontzejuetan, edo hautagairik aurkeztu ez bada, hautagai zerrendak inprimatu gabe dauzkan EC.3 ereduko boto papera erabiliko da. Han, hautatu beharreko kide kopuruaren baliokidea ken bati dagozkion izenak gehienez ere idatzi ahal izango ditu hautesle bakoitzak, eta aldarrikatutako hautagaiei zein hautatuak izateko eskubidea duten beste batzuei eman ahal izango die botoa.

Boto zuria adierazteko, izenik gabeko boto paper bat sartuko da (hautagairik gabeko kontzejuetan) edo lauki guztiak markatu gabe utziko dira (hautagaiak dituzten kontzejuetan). Halaber, boto zuritzat joko da barruan boto paperik ez daukan gutun azala.

e) Hautesleek, haiek identifikatu eta kasuan kasuko erroldan daudela egiaztatu ondoren, lehendakariari emango diote boto papera, gutun azal ofizialaren barruan, eta lehendakariak sartuko du hautetsontzian. Mahaiak berariaz prestatutako hautesle zerrendan idatziko du emandako botoa.

Boto aurreratua

Ezin da posta bidezko botorik eman. Aukera dago boto aurreratua emateko kasuan kasuko udaleko idazkariaren aurrean, honako jarraibide hauen arabera:

1. Interesdunak berak eskatuko du, azaroaren 14ra arte (egun hori barne), udal erroldan inskribatuta dagoela egiaztatzen duen agiria, kontzejua kide den udaleko idazkaritzan. Idazkariak ziurtagiria emango du hauteskunde dokumentazioarekin batera: boto papera, sepia koloreko gutun azala (botoa emateko) eta gutun azal zuria (hauteskunde mahairako).

2. Mahaiaren aurrean emango balitz bezala emango da botoa, d) letran ezarritakoaren arabera.

3. Boto orria sepia koloreko gutun azalean sartuko da, Arabako Kontzejuetako Errejidoreen eta Bokalen Hauteskundeak inskripzioarekin. Gutun azal hori, errolda ziurtagiriarekin batera, kasuan kasuko kontzejuko hauteskunde mahaiko lehendakariari zuzendutako gutun azal zuriaren barruan jarriko da, eta ez da itxi behar boto aurreratuaren prozesua zuzen dagoela egiaztatzeko.

Udaleko idazkariak azaroaren 17ra arte (egun hori barne) jasoko ditu boto aurreratuko gutun azalak, edukia egiaztatuko du eta gutun azal zuria itxiko du boto emailearen aurrean. Gutun azal horiek haren zaintzapean geratuko dira bozketa egunera arte.

Hauteskundearen egunean, jaso diren boto aurreratuak emango dizkiete udal idazkariak hauteskunde mahaiei, eskubide hori baliatu duten pertsonen zerrendarekin batera. Hautesle erroldako zerrendetan, pertsona horien izenarekin batera, "A" letra agertuko da, boto aurreratua dela adierazten duena.

Boto aurreratuak azkenak sartuko dira hautetsontzian, bozketa amaitu baino justu lehenago.

Laugarrena. Boto kontaketa

1. Bozketa amaitu ondoren, mahaiak boto kontaketari ekingo dio. Lehendakariak banan-banan aterako ditu gutun azalak, ozen irakurriko ditu botoa eman zaien pertsonen izenak, eta egiaztatuko du ea bat datozen boto paperen kopurua eta idatzitako boto emaileen kopurua. Boto kontaketa jendaurrean egingo da.

2. Boto sailkapena:

- Baliiodunak: aurreko arauen arabera ongi emandakoak.
- Zuriak: boto orririk gabe emandakoak, edo boto orriarekin, baina izenik eta markarik gabe.
- Baliogabeak: ofizialak ez diren gutun azal edo boto paperetan emandakoak, boto paper bat baino gehiago dituztenak (salbu eta berdin-berdinak badira), baimendutakoak baino boto gehiago edo boto paper inprimatuetan aldaketak dituztenak, eta hautagarriak ez diren pertsonen izenak dituztenak.

3. Kontaketa amaitu ondoren, lehendakariak erreklamaziorik dagoen galdetuko du. Haiek ebatzi ondoren, publikoki iragarriko da emaitza, eta honako hauek zehaztuko dira: hautesleen, boto emaileen, boto paper baliiodunen, baliogabeen eta zurien kopurua, eta hautagai zerrenda bakoitzak lortutako botoak.

4. Boto paperak jendearen aurrean suntsituko dira, salbu eta erreklamazioen bat jaso dutenak, zeinak aktari erantsiko baitzaizkio.

5. Emaitza berehala argitaratuko da EC.6 ereduaren araberrako ziurtagiri baten bidez. Ziurtagiri hori hautets lekuko sarreran jarriko da.

6. Mahaiak bilkura akta jasoko du, eta hura osatzen duten pertsona guztiek sinatu beharko dute, prozesuaren datuak eta, hala badagokio, erreklamazioak jasota.

7. Hauteskunde dokumentazioa bi gutun azaletan sartuko da:

— Lehenengo gutun azalak boto emaileen zerrenda, jatorrizko akta eta erreserbatutako boto paperak jasoko ditu.

— Bigarren gutun azalak, berriz, aktaren kopia bat.

8. Bi gutun azalak kasuan kasuko udalerriko Hauteskunde Batzordeko ordezkariari emango zaizkio, eta hark jaso izanaren agiria emango du, eguna eta ordua adierazita.

9. Une horretatik aurrera, ordezkariak izango du hauteskunde dokumentazioa zaintzeko eta gordetzeko ardura.

Bosgarrena. Ordezko arauak

Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuetako Errejidore eta Kideak Hautatzeko Foru Arauan eta foru agindu honetan jasota ez dauden guztietan, udal hauteskundeei buruzko indarreko araudia aplikatuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urriaren 23a

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatua

LAURA PÉREZ BORINAGA

Lurralde Orekaren zuzendaria

JAVIER GORBEÑA GARCÍA